




H

IRUTXULO KO HITZA

2025

GARONAK



BARNE DISEINUA ALTZARIAK

Ametzagaña 7
Egia · Donostia
www.apal.eus
943 320400
info@apal.eus



ARATZ
zabaleta anaiak



Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Igara Bidea, 15, 20018 Donostia, Gipuzkoa Tel.:943-21 92 04

Gabonak nola bizi

Gabon eguna abenduaren 25ean eta Errege eguna urtarrilaren 6an bada ere, dagoneko ez dago hain argi Gabonak egun horietan hasi eta bukatzen direnik: azaro hasierarako, ikusten hasiak ziren Donostiako kaleetan Eguberrietako argiak; azaroaren 28an egin zuten argiak pizteko ekitaldi gero eta handiagoa eta Alderdi Ederreko noria, jada tradizional bihurtzen hasia dena, azaroaren 14tik dabil bueltaka, eta hala jarraituko du urtarrilaren 31ra arte. Orduan, noiz eta nola bizi behar ditugu Gabonak?

Data jakin batzuetatik harago, Gabonak bakoitzak bere modura bizitzea litzateke proposena. San Tomas egunean hasi eta Urteberri egunean bukatu, adibidez. Edo, Gabon gauean hasi eta Errege egunean amaitu, esaterako. Edo, duela ia hilabete argiak piztu zituztenetik Eguberrietan murgilduta bazaude, zergatik ez luzatu Gabonak urtarrilaren 31n norian azken buelta bat eman arte? Edo, zergatik ez, ez bizi Eguberriak, saiatu bizitza normala egiten. Hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzu datozen egunotaz modu batean edo bestean disfrutatzeko zenbait proposamen eta aukera.

Hori guztia, noski, Gabonak nola biziko dituzun erabakitzeko aukera badaukazu. Izan ere, askok, tamalez, ez dute erabakirik hartzeko aukera hori edukiko, aurten ere ez: euren burua ez daukaten dirua gastatzera behartuta ikusiko dute askok, batzuek ondo pasatzen duten bitartean etxea eta mahaia prest eta txukun edukitzera beste askok, ondoko astunaren diskriminazioa jasatera beste askok, familiatik urrunduta orduak eta orduak lan egitera beste askok, bakarrik egotera beste askok eta urteko gainontzeko egun guztien moduan, data horren seinالاتu hauek kale gorrian pasatzera gero eta gehiagok.

Ahal duenak, bizi ditzala jai hauek erabakitzen duen moduan. Baina denok aukeratu ahalako al dugu hurrengo urtean nola biziko ditugun Eguberriak? Noizbait hala izatea lortuko dugulako itxaropenarekin, zorionak eta urte berri on!



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2025eko abendua

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Azala: Iñaki Agirre eta Oier Arribas

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

Irutxulo
.hitza
.eus



«Baserritar jantziak urte osoan zehar saltzen dira. Beti dira herriren bateko festak»

SONIA GARCIA DOLADO

Almacenes La Bretxako arduraduna

1933 urteaz geroztik, Parte Zaharreko Almacenes La Bretxa dendak eguneroko eta laneko arropa saltzen dihardu. Urteak dira, gainera, baserritar jantzien saltoki erreferente bihurtu zela Donostian, eta Gabonen bueltan lanpetuta aritzen dira. Egungo arduradun Sonia Garcia Doladorekin (Erdialdea, 1972) solastu gara aurreko senideek abiatutako familia saltokian bertan.

Zein izan da Almacenes La Bretxa dendaren ibilbidea?

Nire aitaren amonak hasi zuen familia negozioa da, bera hasi zen salerosketarekin; gerora, nire aitona aritu zen, eta ondoren, nire aitak hartu zuen denda. Gaur egun, nik jarraitzen dut, laugarren belaunaldia naiz. Aurrerantzean, ez dakit. Erretiroa hartzen dudanean ez dakit zer gertatuko den.

Baserritar jantziengatik ezagutuko zaituztete askok. Zer eskaintzen duzue?

Hasiera batean, aldagarriak, laneko arropa, haurren arropa eta emakume zein gizonezkoen al-kandorak genituen. Eta jada urte batzuk badira baserritar jantziak saltzen hasi ginela; asko eboluzionatu du horrek, orain gauza mordo daude. Baserritar jantzi klasikoa, abarkak... denetarik dugu.

Nola eboluzionatu dute baserritar jantziek, bada?

Iraganean aukera murriztagoa zen, oraingo eskaintza askotarikoa da. Lehen, jantzi tipikoak soineko motadunak eta loretxodunak ziren neskentzat. Eta, mutilentzat, marradun prakak eta atorra beltza. Orain, mundu bat da, kolore pila ditugu, modelo ezberdinak. Loredun gonak, lore gabekoak, nahasketak, estanpatuak... aniztasun asko dago.

Gabonak iristear direla, lan karga handia nabaritzen duzue?

Lan karga dezente handitzen da udazkenetik aurrera. Jendea jada urrian begiratzen eta galdezka hasten da, San Tomas eta Gabonak tarteko. Batez ere, haur txikiak dituen jendea edota jaioberrien senideak arropa begiratzen hasten dira. Azaroko asteburuetan, aski nabari da Gabonak laster ditugula, bezeroak haurrekin etortzen hasten dira ordurako. Eta, abenduan, ataza izugarria da, topera gabiltza.

Urtean zehar, dendako lana oso ezberdina da?

Egia esan, baserritar jantziak urte osoan zehar saltzen dira. Beti dira herriren bateko festak;



Almacenes La Bretxa denda San Juan kalean dago.

ondorioz, beti ditugu bertako traje tradizionalen eskariak. Udan ere, kaiko Karmengo jaiekin, mahoizko jantzi asko izaten ditugu, eta sanferminetako jantzi zuri-gorria ere saldu ohi dugu; edozein motatako ospakizunetarako arropa dugu. Eta bestetik, eguneroko gauzak. Galtzerdi asko saltzen da, aldagarri asko, txapel asko... Txapelak asko saltzen dira, atzeritarrek erosten dituzte, batez ere.

Zer dela eta gerturatzeko dira turistak tokiko komertziora?

Turista asko marka ezagututa datoz hona, Elozegi txapelen

bila datoz asko. Makina batek galdetzen du horren inguruan. Argentinan asko datoz, adibidez, beraien aitona-amonek iraganean Euskal Herritik bertara migratu zutela esaten dizute: «Nire aitona euskalduna zen...», eta euren senideen istorioa kontatzen dizute.

Eta bestetik, askori era hone-tako negozioek arreta pizten die. Jada ez dituzte mota honetako betiko dendak ikusten, eta oso gustuko dute. Ingelesezt, edo euren hizkuntzan, denda oso polita dela esaten digute. Ezohiko negozioa da askorentzat, iraga-



«Jendeak eskaintzen dugun gertuko arreta hori eskertzen du»

nekoa. Beno, bertako jendeak ere esaten digu, ea nola jarraitzen dugun egun dendarekin, harrituta.

Gaur gaurkoz, Internet bidez ere jende askok begiratzen du zein marka diren, aurretiaz ezagutzen dute zer dagoen. Opari ere eramaten dituzte, umeentzako, biloben-



Urrats
euskaltegia



www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia





Sonia Garcia Dolado dendako arduraduna.

tzako... nahiz eta gero ziurrenik ez erabili, baina, tira, oroigarri gisa. Polita da.

Parte Zaharreko merkataritzan aldaketak bizi izan dituzue urteotan?

Parte Zaharra asko aldatu da gu bertan gaudenetik. Orain, turistentzako negozio asko daude, *souvenir*-ak eta pitxiak saltzen dituzten dendak asko dira. Eta bestetik, azken urteotan, kaleko giroa aldrebestuta dagoela sumatzen dut, segurtasunaren gaia-rekin. Baina gehien aldatu dena turismoaren eraginez izan da.

Bertako jendearekin ere asko egiten dugu lan, noski. Betiko

bezeroak asko dira. Parte Zaharreko eta kaiko jende asko bezero dugu. Eta bizipenak ere kontatzen dizkigute, amonarekin edo amarekin dendara etortzen zireneko oroitzapenak.

Esaterako, orain Bretxa kontontzen ari direla eta, argazki batzuk ikusi ditugu bertan, eta horietako batean arrain saltzaille bat gure poltsa batekin ikusi dugu, kasualitatez.

Bezero ugari arreta asko eskertzen du, gauzak erakustea, gomendioak ematea... jende nagusi askok ere laguntza behar du gauzak probatzeko. Hori era honetako dendetan egiten duzu,

bestelako multinazional handietan zuk zeuk egin behar duzu dena, probagelan sartu eta zure ardura da neurri egokiko arropa bilatu eta aurkitzea. Tira, jendeak eskaintzen dugun gertuko arreta hori eskertzen du.

Laneko arropa iraganean bezain beste erabiltzen da egun?

Mahoizko galtzak saltzen jarraitzen dira, jende asko horren biladator, berariaz. Uste dut horrelakoak ez direla leku askotan saltzen. Dena den, nabari da fabrika askotan laneko arropa banatzen dela, segurtasuneko koloredun buzoak, laneko galtzak... Baina, tira, guk mahoizko galtza



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

**Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com**



klasikoa aski saltzen dugu, algodoizkoa. Eta bestetik, laneko prakez gain, mahoia ere asko saltzen dugu udan; kostaldeko jaiak direla eta, blusak eta gonak, batik bat.

Nola bizi izan duzue arroparen garapena?

Guk arropa oso klasikoa dugu, jende nagusiarekin egiten dugu lan, batez ere. Hortaz, ez ditugu arropa oso moderno edo koloredunak ekartzen, bezeroak hona beste zerbaiten bila datoz. Zentzu horretan, ez dugu aldaketa nabarmentik sumatu.

Tira, gure lana zailtzen duena fabrika askoren itxiera da; desagertu egiten diren produktak oso zailak dira aurkitzen. Hau da, behin fabrika itxita, arropa hori ekoizten duen beste inor aurkitzea oso zaila izaten da. Badira gauzak ehungintzan eten eta beste batek egiten ez dituenak, eta gerora arazoak



Askotariko arropa dago salgai Almacenes La Bretxan.

dakartza horrek. Dendara ekarri nahiko zenukeen produktu hori ezin topatu aritzen gara zenbaitetan.

Familia negozioa izanda, nola ikusten duzu saltokiaren belau-naldi aldaketa?

Nire ahizpak alaba bat du, nik neuk, bi; baina, uste dut beste

nonbaitetik ekingo dutela euren ibilbide profesionala. Ni jubilatzen naizenean, auskalo. Ez dakit zer egingo dugun. Familiakoa ez den norbaitek hartu eta negozioarekin jarraitu ezean, egia esan, ez dakit zer gertatuko den. Oraindik ez dugu pentsatu ere egin, helduko da unea. ●



ILAZKI

EUSKALTEGIA

Zabaldu zure mundua

HABEk diruz lagundua

HABE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus



Bernardo Anabitarte dendako arduraduna, mostradorean.

Vinos y Licores Ezeiza, azken tragoa

Prim kaleko Vinos y Licores Ezeiza denda historikoak egun gutxiren bueltan agur esango du, bere atea itxiko baititu. Bernardo Anabitarte jabeak azken uneak nolakoak izaten ari diren azaldu du, baita 125 urteko ibilbidea errepasatu ere.

📷 Gorka Correyero Llamas

Donostia ezin liteke ulertu bertako dendak aipatu gabe. Historia handiko dendak daude gure hirian, eta horietako bat Vinos y Licores Ezeiza da. 125 urteko historia luzea du denda honek, eta gaur egun halako denda bat mantentzea oso zaila da. Bernardo Anabitarte gaur egungo jabeak azken uneak bizi ditu denda honen mostradorearen atzean. Nahiz eta itxiera data finkorik ez izan, ahalik eta lasterren izatea espero du Anabitartek.

**HERRI AMETSA
IKASTOLA**

www.herriametsa.eus

DONOSTIA 943 39 35 20

Guardaplata bidea, 28

Ikastola txikia
Familia handia

*Zerionak
eta urte berri on!*



Vinos y Licores Ezeiza dendaren barrualdea.

Senideen artean, inor ez dago prest belaunaldi aldaketa egiteko eta dendaren jabe izateko

13 urterekin hasi zen lanean Prim kaleko dendan, eta 88 urte ditu orain. Nekea sumatzen zaio, eta eroslearen zain dago. «Alokatzeak arazo ugari ekarriko dizkit, lau egun besterik ez zaizkit falta. Hil eta gero zer? Horregatik, nahiago dut saltzea», dio, barre artean. Erretiroa hartzeko garaia aspaldi pasatu du, urteak ditu erretiroa hartzeko. Gainera, goizez eta arratsaldez dihardu bezeroei arreta ematen.

Baserri giroan sortua, bizitza zaila izan du Anabitartek. Gurasoak gazte hil ziren, eta izeba-osaben baserrian hazi egin zen. Baserrian lan egin eta gero, dendara jaisten zen: «Gaur egun, inork ezingo zukeen horrela bizi». Dioenez, senideen artean, inor ez dago prest belaunaldi aldaketa egiteko eta dendaren jabe izateko. Hortaz, «erosleen esperoan» dabil egunotan Anabitarte.

Esentzia mantentzea

Betiko esentzia gal ez dadin, lokala erostera datozenei jakinarazi nahi die gaur egun Donostian ardo denda bakarra dela Ezeiza. Hala ere, argi du lokala erosten duenak askatasun osoa duela goitik behera aldatzeko. «Gazte batzuek interes handia dute

lokala erosteko, eta berdin jarraitu nahiko luketela aipatu didate». Anabitartek denda eta bertan duen ardoa saldu nahi ditu, biak elkarrekin, nahiz eta, dioenez, askok ardoa soilik erosi nahi duten.

Garai batean, ardoa saltzen zuten denda ugari zeuden hirian. Gainera, Erdialdean denak. Prim kalea erdigunean bertan egonik, Anabitarte ez da kexatzen dendak duen kokapenez: «Autobus eta tren geltokiak, Artzain Ona, Correos... eta, gu, erdian». Duela urte batzuk, dioenez, jende ugari etortzen zen Frantziako Estatutik ardoak eta likoreak erostera. Auto ilara izugarriak sortzen omen ziren Prim kaleko inguruetan. Gaur egun hori gertatzea ezinezkoa litzatekeela dio, ordea, aparkatzeko tokirik ez dagoelako.



Zorionak eta Urte berri ou!



111 urte | www.papeleriatamayo.com | Legazpi kalea 4



Askotariko botilak daude Vinos y Licores Ezeizan.

Jende ugari etortzen zen Frantziako Estatutik ardoak eta likoreak erostera. Auto ilara izugarriak sortzen omen ziren Prim kalean

Bestalde, egoera asko aldatu da azkenengo urteetan, Anabitarten arabera. Edonon supermerkatuak daude, eta betiko dendak ezin dira erraldoi horien aurka lehiatu. Jabea kexu da, supermerkatuengatik ez ezik, Interneteko erosketak direla eta, bezeroak ez direlako dendetara gerturatzen. Hala ere, nabarmendu du betiko

bezeroak jarraitzen direla dendara hurbiltzen: «Oso leialak dira», dio, pozik.

Balio handiko egurra

Bezeroen joan-etorria ugaria izan da 125 urteetan. Horren seinale da egurrak duen marruskadura. Denda pinu egurrez eginda dago, eta, Anabitarteren esanetan, egurra kentzea «bidegabekeria» izango litzateke: «Egur honek izugarrizko balioa du, eta honek kategoria ematen dio dendari». Horrez gain, lokal handi horrek beste ezaugarri garrantzitsu batzuk ere baditu, izan ere, barruko gelak bi pisu ditu, eta, azpian, balio handia duen ardoa gordetzeko

upategi zabala dute, 197 metro koadrokoa.

Dendak bere horretan esentzia duenagatik ere, jakintza handia dago bertan metatuta. Ardogintzan jakintsua da Anabitarte, eta bezeroekin duen hartu-emanean agerikoa da. Bezeroaren eskakizuna ahalik eta zehatzena izatea du helburu, eta, horretarako, mota guztietako xehetasunak helarazten dizkio ardo onena eraman dezan. Ardo onena zein den galdetuta, erantzuna argia da: Vega Sicilia. Bere ustez, Espainiako Estatuko ardo onena izateaz gain, munduko onenen artean ere badago.

Aipatutako ardoaz gain, xanpain eta likore ugari ditu. Gaur egun, edaria botiletan saltzen da, baina garai batean edaria ontziratatu gabe saltzen zuen, soltean. Oraindik, barrika haiek bertan mantentzen ditu: «Lau horma hauen artean izugarrizko altxorak ditut». Edari litro hauek guztiak pixkanaka saltzen ari den arren, oraindik ere edaria erosten jarraitzen du Anabitartek: ardoak, xanpaina, likoreak... denetarik. Izan ere, Eguberriak datoz eta egun garrantzitsuak izan ohi dira dendarentzat.

Opariak erosteko leku bikaina

Egunotan, herritarrek ospakizun ugari dituzte, eta, hori dela eta, Vinos y Licores Ezeizak jende ugari bilduko du datozen egunotan. Aurrera egiten jarraitzeko ezinbesteko egunak direla dio.

OLIYOS
TABERNA JATETKEA

**Ondo
igaro jaiak!**

Erregezaintza, 4
Donostia
Tel.: 943-21 49 89

Que pelos!!!

Zorionak eta urte berri on!

ileapaindegi mistoa

Karmengo Ama, 12 - DONOSTIA Tel.: 943-32 27 76
www.quepelos.com quepelos@hotmail.com

«Enpresa askoren opariak, seni-deentzako opariak, bazkari zein afaritan zerbitzatzeko edariak eta abar saltzen ditugu».

Jendearen mugimendua nabaria da, hain zuzen ere. Elkarriketa egin bitartean, bezero bat hurbildu eta dendaren egoeraz galdetu dio Anabitarteri. Bezeroa ezaguna da, eta jabea azkar gogoratu da duela gutxi bezeroak egindako galderaz. «Aurrekoan gomendatu zenidan ardoaren bila nator, baina izena ez dut gogoratzen», esan dio bezeroak dendariari. Eta, zuze-nean, Anabitarrek eskatutako ardoa ekarri dio. Denda honetan hainbeste urte egon ondoren, zehatz-mehatz esan ditzake ardo bakoitzaren xehetasunak. «Ardoa eroatera etortzen naizen aldiro, zerbait berria ikasten dut», dio bezeroak, pozik.

Bezeroen poztasunak asko laguntzen du Anabitarre, baina

negozioaren salerosketa ahalik eta lasterren ixtea espero du: «Bizitza osoa eman dut hemen sartuta, eta nik uste dut badela garaia atsedena hartzeko».

Dendak bere horretan esentzia duenagatik ere, jakintza handia dago bertan metatuta

Azken dantza

Ardoaren azken tragoa izaten omen da onena. Hala izatea espero du jabeak. Abenduaren 13an, festa bat antolatu zuten Prim kaleko dendan. Artista ugari bertaratu ziren, eta horma irudi handi bat margotu zuten.

Azken dantza antolatzea ez da bere egitasmoa izan. Bezeroek

animatu zuten zerbait berezia antolatzeri: «Artista batzuk etorri ziren festa antolatzeko data zehaztera, eta nik argi eta garbi esan nien Eguberriak hasi baino lehen izan behar zuela». Eguberrietan lan handia izango duenez, ezinezkoa zuen garaiotan festa antolatzea. Hainbat artistak parte hartzeaz gain, gazta dastaketa ere eduki zuten. Ardoekin batera, hain zuzen ere, Olatza baserriko gaztak protagonismo handia izan du dendan. Gazta honek hainbat sari lortu ditu, azkena pasa den irailean: «Euskadiko gaztarik onena saltzea ohorea izan da».

Hiriko komertzio txikien egoeraz galdetuta, argi du egoera larrian daudela. Donostiako postaletan azaltzen diren irudiez gain, dendak historiko hauek ere hiriaren historia dira, baina etorkizuna ilun ikusten du Anabitarrek: «Denda txikien heriotza oso gertu dago». ●



Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

DONOSTIA

ANTIGUAKO AEK
Erregezain, 22
943-21 80 88 · antigua@aek.eus

AMARA BERRI AEK
Ordoñez, 7 (ARCCO parean)
943-47 45 92 · amara@aek.eus

GROSEKO IRRINTZI AEK
Iztueta, 3, behea
943-32 76 11 · gros@aek.eus



Frantzia pasealekuan jarri dute Gabonetako izotz pista.  **DONOSTIA SUSTAPENA**

Neguko aisialdi proposamenak Donostian

Gabonak iritsi dira eta hirian programazio zabala antolatu du beste urte batez Donostia Sustapenak: musika, kirola, ikuskizunak... Denetarik antolatu dute.

 Garazi Etxaniz Idarreta

Donostiako argiak dirdirka ari dira azken asteotan. Kaleetan barrena gabon kantak entzuten dira nonahi, eta gaztaina erreen usaina dario hiriari. Gazte, nerabe eta ez hain nerabeek ate joka dituzte opor egunak, eta hiriak nabari du. Jaiegunak gutxi ala asko, familia, lagun eta senideekin bestelako planak egiteko uneak izaten dira Gabonetan, eta Donostian, urtez urte, handituz doa aste hauetara-

ko antolatzen diren egitasmoen eskaintza.

Jarduera eta espazio batzuk urtero errepikatzen dira, izaten duten arrakasta dela medio, baina, urtearen arabera, berrikuntzak ere izaten dira. Donostia Sustapena arduratzen da Gabonetako kanpainaren programazioa antolatzeaz, eta aurrean ere azaroaren 28tik hasita urtarrilaren 6ra bitartean hamaika egitasmo prestatu dituzte hiri osoan zehar.

Esperientzia berriak: Miramarreko ikuskizuna eta izotz pista

Zalantzarik gabe, bada jarduera berri bat zeinak, ezinbestean, hiritar askoren atentzioa bereganatu duen: Miramar Magikoa. Lorategia goitik behera argitu eta intsektuen munduari buruzko ikuskizun berezia prestatu da bertan, eta egunero, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean, ordu erdi inguru irauten duten saioak antolatu dituzte. 700 metro inguru dituen ibilaldia da, erle, kakalardo, tximeleta eta bestelako animalia txikiz osatutako figurekin betetakoa eta publiko guztia-arentzako aproposa. Urtarrilaren 5era arte egingo da ikuskizuna, baina aurrez sarrera hartzea ezinbestekoa da, izan online, Puntu Dendan edota Miramar Jauregian bertan (Mirakontxa pasealekuko leihatilan).

Esperientzia berriak gustuko dituenak izango du Miramarrekoaz harago zer egin: izotz pista berria jarri dute Frantzia pasealekuan. Orain arte, gehienbat talde han-

dien erreserbetarako erabili bada ere, egun zabalik ditu ateak bertan patinatu nahi duen edonorentzat, jaiegun eta asteburuetan barne. Donostia Sustapenako kideek jakinarazi dutenez, izotz pistan «jardunaldi berezi bat» ere antolatzen ari dira, oraindik informazio gehiago eman ez duten arren.

Donostiako Orfeoia ere parte hartuko du zikloan eta doako hiru kontzertu eskainiko ditu

Izotzetan irristan ibiltzea baino lurzorua nahiago duenak, izotz pista alboan bertan paseoa eman dezake. Izan ere, urteroko legez, Gabonetako azoka aurki daiteke Urumea pasealekuan eta Ramon Labaien plazan, orotariko kolo-redun etxolez beteta: bitxigintza, arropa, eskuz eginiko koadernoak, ilustrazioak... denetarik aurki daiteke. Berezitasun bat ere badu merkatuak: Ramon Labaien plazan azoka gastronomikoa antolatu dute, hau da, produktuak erostez gain, bestelako jakiak dastatzeko aukera eskaini dute oraingoan. Era berean, artisau azoka ere antolatu dutela nabarmendu dute, «Lur Kolektiboari esker».

Haur eta gazteak protagonista

Asteotan, haur eta gazteentzako espresuki antolatutako jardunaldiak aurki daitezke hirian. Esaterako, hirugarren urtez egingo dute *DonoSTEAM* egitasmoa, zeinak helburu duen zientzian eta teknologian oinarritutako jarduerak etxeko txikiengana gerturatzeari. Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 4ra bitartean egingo dira ekitaldiak Kursaal, besteak beste, kontsolekin jolasak, diseinu eta animaziorako tresnen ikastaroak eta 3D inprimaketa tailerrak. Jardunaldietan parte hartzeko sarrera erosi behar da, horretara-



Intsektuen munduari buruzko ikuskizun berezia jarri dute Miramarren.

DONOSTIA SUSTAPENA

rako prestatutako webgunearen bitartez.

Zientzia eta teknologiak alde batera utzita, artea eta musika oinarri duen Musika Gabonetan zikloa ere martxan da, zeinaren bitartez «talde eta musikari berriak aurkitu» eta gazte artistei «haien talentua erakusteko tokia» eman nahi izan zaien. Hala, musika eskolekin eta akademiekin kontaktuan jarrita lortu dute plazak musikariz betetzea, eta *Zure lehen eszenatokia* bihurtuko dira, bai Bulebarreko kioskoa, bai Ramon Labaien plaza. Horrez gain, Donostiako Orfeoia ere parte hartuko du zikloan eta doako hiru kontzertu eskainiko ditu: abenduaren 20an Amaran, 26an Egian eta 27an Altzan. «Kontzertu politak dira eta azkar betetzen dira. Denborarekin joatea komeni da», gomendatu dute antolatzaileek.

Bestalde, kirol inklusiboa eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzea helburu, Gabonak Hondartzan haurrentzako ekimena antolatuko dute beste behin ere, abenduaren 23an,

Fortuna kirol elkartearekin lankidetzan. Egunean bertan, Kontxako erlojuen azpian egingo dira inskripzioak, doan, eta parte hartzaileek aukera izango dute goizean zehar kirol jarduerak egiteko, era ludiko batean. Iaz, esaterako, oztopo lasterketetan eta arkularitzan aritu ziren, hitzalditxoaren bitartez informazioa jasotzen zuten bitartean hondartzak zaintzeari eta zaborrak jasotzeari buruz.

Azkenik, Zurriola pasealekuan Gabonetako bola dagoela gogorazti dute antolatzaileek. Bertan, arratsaldeko 18:30ean hiru abestiz osatutako ikuskizun txikia izaten da, argindarra eta musika uztartuta.

Informazio gehiago

Donostia Sustapeneko kideek hainbat gomendio eman nahi izan dizkiete donostiarrei: batetik, sare sozialak jarraitu eta egunero begiratzea, bertan egunez eguneko informazioa partekatzen delako; bestetik, *Donostiagabonetakoazoka.eus* webgunea arakatzea, informazio osoa hor jasota baitago. ●

IKASGELAN JUSTIZIA SOZIALA LANTZEKO TRESNAK



ERALDAGUNE

Irakasle, aldaketaren parte
izan nahi duzu?



**SARTU,
HAUSNARTU, EGIN!**

Antolatzaileak:



Babesten dutel:



E
N
B
A
T
A



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
943424797 - 609314962
enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus



Triku  Harri

taberna  Sjatexea



Matia Kalea 35, Antigua
www.trikumarrijatexea.com

*Boutique Erótica
La Gata con Botas*



Karmelo Etxegarai, 6
Donostia - Antigua
943-31 02 70
638-84 77 89
www.lagataconbotas.es

EUSKARAGIDA

Euskarazko Produktuen gida 2025-2026

www.donostiaeuskaraz.eus





Mijo eta Lasku Donostiako Asanblada Transbollomarikako militanteak.  JUNE AGIRRE ANSA

Bollotomas: tradizioaren traizioa

Donostiako Asanblada Transbollomarika herriko eragile transfeminista garrantzitsuenetako bat bilakatu da azken urteotan. Bere jatorria Ekainaren 28ko koordinakundean dago, LGTBI Komunitatearen Eguna antolatzeko biltzen ziren taldeetan. Baina berehala ohartu ziren egutegiaren egun bakar horrek ez zuela asetzen komunitatearen benetako beharra, eta hortik jaio zen Bollotomas jaia.

 June Agirre Ansa


Helburu argi batekin sortu zuten Donostiako Asanblada Transbollomarika: urte osoan zehar lan politikoa egin, komunitatea artikulatu eta espazio seguruak sortzeko espazio propioa izatea. Jarduna askotarikoa da: aliantzak sortzen dituzte hiriko beste taldeekin, ekitaldiak antolatzen dituzte, formakuntza politikoa bultzatzen dute eta, batez ere, Donostiako komunitate ez heterosexuaren ikusgarritasuna handitzen dute: «Diskurtso politikoa egiten dugu heterosexuatarean aurka eta komunitate ez heterosexuala ar-

MariaReinaEskola

Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

Zorionak eta urte berri on!

Ametzagana 58 • Egia • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com





2024ko Bollotomas jaian parte hartu zuten haibat pertsona.  SARA IBARGUREN

Helburua argia da: gizon zis heteroek okupatu duten egun honetan bestelako komunitateek espazioa dutela aldarrikatzea

tikulatzeko», azaldu dute Mijo eta Lasku militanteek —nahiago izan dute soilik ezizenez identifikatzea lerrootan—.

Euren lan horren adibide argienetako bat Bollotomas da, San Tomas egunean antolatzen duten ospakizun alternatibo transfeminista, urteko egun berezietako bat bihurtu dena.

Santomasen bestelako irakurketa
Bollotomas Donostiako San

Tomas egunean ospatzen den jai transfeminista da, azken urteotan sendotu eta indartu dena. Askotariko jarduerak nahasten dituen eguna da, betiere, ikuspegi transfeminista abiapuntu: kalejira, bertsoak, euskal abestien koru kolektiboa, saltsa-bachata jarduera, jantzi tradizionalen berrinterpretazioa eta, noski, arratsalde-gaueko giro paregabea.

Egunaren helburua argia da: historikoki gizon zis heteroek okupatu duten egun honetan bestelako komunitateek espazioa dutela aldarrikatzea. «San Tomas gizon zuri heteroentzako egun bat da, baina guk ere parte izan nahi dugu, eta ez modu heterosexualean», azaldu dute antolatzaileek. Horregatik antolatzen dute jai alternatiboa,

euren izaera eta ikuspegia erdi-gunean jarritz.

Tradizioaren traizio politikoa

Bollotomasen historia ez da lineala: duela urte batzuk abiatu zuten, etenaldi bat egin zuten eta, geroago, berriro hartu zuen gaur egungo Asanblada Transbollo-marikak. Jatorri horrek badu helburu sakon bat: tradizioari buelta ematea, ez baztertuz, baizik eta berrirakurriz: «Ez dugu ukatzen tradizioa, baina gure burua traizio horretan kokatzen dugu», azaldu dute militanteek.

San Tomas eguna ez dute iraganeko postal moduan ulertzen; tradizioa bizirik dagoen zerbait da, eta gaur egungo gorputzek eta identitateek nola bizitzen duten erakusten du bere zentzua. Horre-



ELKANO-URDANETA

Ozeanoen aurkikuntza

2025/12/04 — 2026/10/04



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARITIMO
VASCO



GIPUZKOA
Kultura

gatik, Bollotomasen jolas bikoitzaren bidez jarduten dute: desidentifikazioa; tradizio hegemonikoari uko egitea, eta berreskuratzea; sinbolo horiek moldatu eta propio egitea.


Euren ustez, festa ez da soilik kritika bat: bada euskal kulturaren parte izateko modu bat. «Euskal kulturaren parte izan nahi dugulako egiten dugu, baina ez dugu modu heterosexual batean bizi nahi», azaldu dute. San Tomas alternatibo hau, beraz, sorkuntza politiko eta kulturala da.

Tradizioa bizirik dagoen zerbait da, eta gaur egungo gorputzek eta identitateek nola bizitzen duten erakusten du bere zentzua

'Kasherito Drag': euskalduntasuna kolore artean

Iaz, arrakasta berezia izan zuen *Kasherito Drag* saioak, eta aurren ere izango du bere protagonismoa. Euskal jantzi tradizionalak oinarri hartuta, *drag* estetikaren bidez jantzen dituzte, kolore biziz, lentejuelaz, makillaje oparoz eta genero anbiguotasunez. «Estetikak eta geure burua munduari erakusten diogun moduak pisu handia du generoaren eraikuntzan», gogorazi dute antolatzaileek.

Euren asmoa ez da parodia hutsa, euskal sinbologiari buelta



2025eko Bollotomas jaiaren kartela. ASANBLADA TRANSBOLLOMARIKA

bat ematea baizik, euskaldun izatearen imajinarioa zabaltzeko. «Badakigu euskal sinbologia dela, baina ez dugu euskal sinbologia horren heterosexualitatea nahi», esan dute, argi.

Kasherito Drag-ek aukera ematen die haien identitateak tradizioarekin askatasunez nahasteko. Maruxak dute erreferente, euskal kultura bera ere disidentziazatik berridatz daitekeela erakusten duen taldea.

Espazio publikoaren borroka

Antolatzaileek argi dute: Bolo-tomasen, eta, oro har, Asanblada Transbollomarikaren jardunean, oztopo handiena ez da antolakuntza bera, hiria baizik: «Donostia turistifikatu eta gentrifikatu batean, espazio publikoa okupatzea oso zaila da genero disidentziaziaz errentzat», azaldu dute.

San Tomas egunean, militanteek diotenez, gizon heterosexual

Irudikatu zure lekua munduan



**SANTO TOMAS
LIZEOA**

askok «lau trago hartu eta gero dena egiteko baimena» dutela sentitzen dute, alkoholaren eta jarrera maskulinizatuaren konbinazio arriskutsuarekin. Horregatik, ezin izan dute inoiz Bollotomas arrakastaz Donostiako Parte Zaharrean egin: «Ezin da bertso saio transfeminista bat egin 46 gizon heterosexual gure ondotik oihuka edo elkarren artean kolpeka dabiltzan bitartean».

Bide horretan, euren aliatuak funtsezkoak direla adierazi dute: «Eskerrak Arranori, Garraixari eta Marrumari; haiek gabe ezinezkoa litzateke». Horiek dira beste Donostia horren parte bat, Bollotomasi arnasa ematen diona.

Poza, indarra eta nahastearen boterea

Bollotomas bizitzea esperientzia indartsua da antolatzaileentzat. «Pozik, ilusioarekin eta eskertuta» sentitzen dira, eta komunitateak egun horretan erakusten duen indarra nabarmena dela adierazi dute.

Egunak dantza, bertsoak, *drag* saioak eta kantuak ditu, baina bada elementu politiko oso berezi bat: kaleko nahasmendua sortzeko gaitasuna: «Gustatzen zaigu kalean sortzen dugun nahasmena: haurrak haserretzen, jendea begira gelditzen, batzuk interesetik, beste batzuk harrituratik edo nazkatik».

Deserosotasun hori ez da kasualitatea; tresna politikoa da: «Genero disidenteok egunero egin behar diogu horri aurre bakarka, baina Bollotomasen kolektiboki



2025eko Ekainaren 28ko manifestazio jendetsua. © JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

egiten diogu aurre, eta horrek indarra ematen digu gure egunerokoan aurrera egiteko», azaldu dute, harrotasunez.

Gerturatzeko gonbidapena

Bollotomas Donostiak duen beste bihotza da: tradizioa berrasmatu, eraldatu eta ospatzen duen bihotza. Kaleak kolore, aldarrikapen eta ausardiaz betetzen dituen festa kolektiboa.

Jaia gertutik bizi nahi duen arren zalantzati dagoenarentzat, mezua argia da: ez da derrigorrezkoa parte hartzea. «Ez da beharrezkoa *drageatuta* edo oholtza gainean egotea; trago bat hartuta eta korroan egonda nahikoa da».

Bollotomas gune ez-mistoa da, baina ez da itxia; gune zabal eta inklusiboa da, parte hartzeko moduak askotarikoak dira eta komunitateak beti egiten du bere tokia. Horrez gain, asanbla-

Zalantza duen edonori mezu zuzena helarazi nahi diote: hurbiltzeak merezi duela

dakoek ohartarazi dute ez dutela inolako erasorik onartuko: «Etorriko den edonork argi eduki dezan, asmoa espazio transfeminista seguru bat sortzea da eta ez da inolako erasorik onartuko».

Horrela, zalantza duen edonori mezu zuzena helarazi nahi diote: hurbiltzeak merezi duela. Ez dira soilik dantza eta parrandarako orduak; bada komunitatea erakitzeko eta indartzeko lekua ere: «Bollotomas ez da festa soil bat; herria beste modu batean bizitzeko aukera da, eta ateak zabalik daude etorri nahi duen ororentzat». ●



Delta URTE BERRI ON!
papelería

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 19:30
Larunbata: 10:30 - 13:30
Andrestegi, 2 behe - ANTIGUA - Donostia
deltapapeleriasdonosti 943-22 38 98 - 663875255 deltapapelerias@gmail.com

San Tomas eguna auzoetan



TXOMIÑENEA

Abenduak 21, Arteleku plazan

17:30-21:00, txistorra, edariak, haur jolasak, musika.

LOIOLA

Abenduak 21, Eliza kalean

11:00, postua zabaldu.

11:00-12:00, jolasak Eliza kalean.

12:00, talo tailerra Hontza elkartearen.

12:30, erraldoiak Eliza kalean.

14:00, itxiera.

GROS

Abenduak 21, Txofre plazan

Egun osoan zehar, txistorra, euskal artisau eta euskal produktuen postuak eta postuen arteko lehiaketa.

10:00, egunaren hasiera.

11:00, postuen arteko pintxo lehiaketa.

11:30, Zuhaiztiko haurren dantza emanaldia. Triki-poteoa eta txalaparta ibiltaria auzoan zehar.

12:30, Zabaltza Elkartearen aldeko argazkia.

12:45, trontza erakustaldia, txalaparta tailerra eta herri kirol parte hartzaileak.

14:00, haur eta gaztetxoentzat dantza festa, Mikeltxi DJ-aren eskutik.

15:00, postuen arteko sari banaketa.

16:00, Andoni Ollokiegi bakarlariaren emanaldia.

17:00, erraldoi eta buruhandiak auzoko kaleetan zehar, Nafarroa Beherea plazatik aterata.

18:30, Sukar erromeria, Okendo kultur etxeak antolatuta.

MORLANS

Abenduak 19, Leire plazan

18:00-21:00, txosna eta Olentzero eta Mari Domingiri harrera.

ALTZA

Abenduak 20, Larratxo pasealekua 49

09:30, diana.

10:00, feria abian.

11:30, goazen Euskaraokea, eskolako parkean.

13:00, euskal dantzak, Herri Ametsako dantzariekin.

14:30, bazkaria Altzania elkartearen.

AIETE

Abenduak 21, Jolastokin

10:00-20:00, txistorra, musika eta abar.

AMARA BERRI

Abenduak 21, Armeria plazan

10:00-20:00, txistorra postuak, txorimaloen lehiaketa, musika, artisauak, ezta eta gozogintza.

AMARA

Abenduak 21, Easo plazan

Egunean zehar, txistorra eta sagardoa.

10:00, txistorra, edariak eta artisauen postuen irekiera.

12:00, haur jolasak.

13:00, trikitilariak.

ANTIGUA

Abenduak 21, Gaskonia plazan

09:00-16:30, txistorra postua eta musika.



620-70 69 36

www.jobilan.eus

Teilatuak.
Fatxadan isolamendu termikoa (SATE).
Pintura barnean eta kanpoaldean.
Lan koordinaketak.

Txirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · info@jobilan.com

San Tomas eguna Donostian

ABENDUAK 21

10:00-16:00, barazki eta fruitu lehiaketa, Jose Salaberria Memoriala Plaza Berrian.

10:00-18:00, abere erakusketa Okendo plazan.

Donostialdeko ezti lehiaketa. Ezti eta erleen erakusketa eta kandelak egiteko tailerra Bretxa plazan.

Txorimalo lehiaketa Zuloaga plazan.

10:00-20:00, txistorra, talo, ogia, gazta, erroskillak, txorizoa, ezti, sagardoa, artisautila salmenta: Plaza Berrian, Sarriegi plazan, San Juan kalean, Bretxa plazan, Bulebarrean, Okendo plazan, Gipuzkoa plazan eta Txurruka kalean.

Poxpolin txerriaren erakusketa Plaza Berrian.

11:00-13:30, Euskal Herriko XXIX. Txistor Lehiaketa Gipuzkoa plazan, foru aldundiaren aurrealdean. Zaporeak elkartearen laguntzarekin. 13:30ean, sari banaketa.

11:00etan, III. Txistorra Gastronomian Lehiaketa Elkano kalean. Laguntzaileak: Gastronomiako Euskal Anaiartea, Super Amara eta Donostiako Udaleko Osasun Publikoko Saila.

11:30etan, Donostiako Baserritar Jantzien VII. Lehiaketa Bulebarreko kioskoan. Antolatzailea: Gero Axular dantza taldea. 13:30ean, sari banaketa.



11:30etan, VI. emakumeen esku pilota txapelketa Trinitate plazan: Sorondo-lparagirre vs Esnal-Rey.

12:00etan, trikitilariak feria girotzen Estanga trikiti eskolarekin. Irteera Gipuzkoa plazatik.

12:20etan, Peru Airtza eta Nerea Elustondo bertsolariak Trinitate plazan.

12:30etan, VIII. Urrezko Kopa, aizkolariak, Trinitate plazan. Parte hartzaileak: Uxue Ansorregi Aranberri, Nerea Arruti Salgado, Oihana Fernandez de Barrena Cardoso, Karmele Gisasola Zenikazelaia (Zelai III) eta Nerea Sorondo Maritorea.

13:00etan, barazki eta fruitu lehiaketa Jose Salaberria Memoriala, ezti lehiaketa

eta txorimalo lehiaketen sari banaketa Bulebarreko kioskoan.

14:00etan, trikitilariak feria girotzen Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin. Irteera Gipuzkoa plazatik.

16:00-17:30, haurrentzako tailerra: Margotu Poxpolin Txerria eta sartu bere etxetxoan, Zuloaga Plazan.

18:30etan, Joselontxos txaranga feria girotzen. Irteera: Sarriegi plazatik.

Mutxikoak Jeiki Hadi taldearekin, Bulebarreko kioskoan. Ondoren, Larraín dantza. Antolatzailea: Herri dantza taldea.

19:45etan, erromeria Jeiki Hadi taldearekin, Bulebarreko kioskoan.

Euskarazko tokiko kazetaritzari laguntzen



IRUTXULOKO HITZA
2026 agenda
dendetan salgai 15 euroan



Hontza - Erdialdea
Ebla - Egia
Garazi - Antigua

T

**10 URTE. NAHI
BESTE TABAKALERA**

2

2

0

0

1

2

5

5

**10 AÑOS. INFINITAS T
TABAKALERAS**

tabakalera.eus

Kirol txartela 2026

Ekin
osasunari!



**Donostia
Kiro**la****



#KirolTxartela





Geuria
M E R K A T U A

IZOZKIAK
KALITATEZKO
EUSKAL ELIKAGAIAK
GEURIA SUKALDEA

erosi euskaraz!



Boulevard 4, DONOSTIA (Sarriegi plazatik ere sarrera du) T. 943 062 694

